

ZAPOREAKEK FURGONETA BAT EROSTEKO DIRU BILKETA ABIATUKO DU

-- CROWDFUNDIG KANPAINA --

Lesboseko uhartean bere proiektua garatu ahal izateko Zaporeakek banaketarako **furgoneta berri bat** behar du. Gure helburua, elikadura osasungarri eta freskoa eskaintzea da Lesbosen dauden pertsona errefuxiatuei, batez ere, egoerarik zaurgarrienean dauden horiei. Egunero 1.500 otordu inguru kozinatzen ditugu maitasun osoz, baina ahalegin hori ezerezean geratzen da ezin baditugu banatu.

CROWFUNDING EDO DIRU BILKETA KANPAINA

Furgoneta berri bat behar dugu, horretarako **40.000€** bildu nahi ditugu. Helburua lortu ahal izateko, gure buruari, **2020ko martxora** bitarteko epea eman diogu. Horretarako, bidelagun izango dugu Gipuzkoa Solidarioa Kutxa fundazioa. Urtarrilaren 7tik martxora amaierarte beraien larrialdietarako kontua proiektu honetarako bideratu baitute. Ondorioz, kontu horretara ekarpena egiten duen orok hobari fiskalak izango ditu errenta kanpaina iristen den garaian, Zaporeaken proiektuari ekarpena egiteaz gain. Kontua honakoa da:


KUTXABANK 2095 5381 10 1064092199

Ekarpen mota guztiak dira garrantzitsuak eta ongi etorriak, denen laguntza ezinbestekoa baita.

BESTE GKE-EKIN ELKARLANEAN

Gaur egun, Zaporeakek eremu edo espazio desberdinetan banatzen ditu gertatutako otorduak. Razio kopururik altuena Team Humanity-k kudeatuko eremuan egiten dugu. Hori, Moria errefuxiatuen esparruaren aurrez aurre kokatzen da. Aipatu proiektua egoera larria bizitzen ari da. Izan ere, orain hilabete Salam Aldeen errefuxiatua eta sortzailea kartzelaratu baitzuten eta Danimarkara deportatuko dute. Hala ere, gaur gaurkoz, espazio hori baliatu dezake Zaporeakek beharrik handiena dutenei janaria eskaintzeko. Guztira, 500 otordutik gora banatzen dira bertan.

Lankidetzak, ordea, ez du etenik. Beste hamaika proiekturi babesa ematen diogu beraien lana aurrera eramaten laguntzeko. Horrela, Stand by me Lesvos, Kitrinos Healthcare, One Happy Family, Wish (Women In Solidarity House), Rowing Together, Movement on The Ground, Low Tech with refugees, Yoga and Sport for the refugees bezalako elkarteekin lanean dihardugu. Azkenean, hauek guztien zeregina errefuxiatuen bizi kalitatea hobetzen laguntzea da, izan osasun arloko zerbitzuak eskainiz, bai eta pertsona gisa garatzeko baliabideak eta erremintak eskaintzea. Hala nola, espazio seguru bat eskainiz, lanbide bat erakutsiz, formazioa eskainiz, ahalduntze eskolak emakumeentzako...



Elkarlanaren informazio xeheagoa

 <p>Morian bizi diren bere 35 boluntarioei janariz hornitu</p>	 <p>Moria barruan bizi diren lagundu gabeko adin txikikoei astean behin frutaz hornitzea</p>
 <p>Erakundeko boluntarioei 250 otorduz hornitu. Beraein espazioa baliatzen dugu 500 otordutik gora banatzeko.</p>	 <p>10 otordu banatzen ditugu Moria barruan bizi diren itzulpen lanak egiten dituzten boluntarioen artean.</p>
 <p>Beraien boluntarioei janariz hornitzen diegu. Beraiek beriz, kolektibo zaurgarrienei tikeak banatzen dizkiete gure janaria jateko</p>	 <p>Olibondoan lan egiten duten boluntarioei 75 otorduz hornitu. Beste 12, etorkizuneko futbol izarrak izango direnei</p>
 <p>Sukaldatu gabeko janariz hornitzen ditugu. Izan ere, espazio honek badu sukaldea eta 1.000 laguni ematen diete jaten</p>	 <p>Kanpin dendetarako olio eta kontserba ontziz hornitu berogailuak eraiki ditzen</p>
 <p>Espazio hau partekatzen duten emakumei gozoa eta fruta eamten diegu.</p>	 <p>Kirol saioetara gerturaten direnei otorduz hornitu. Bestela, ezingo lukete ekintza hau garatu banaketa orduarekin talka egiten duelako</p>
 <p>Pikpa esparruan bizi direnei sukaldatu gabeko elikagaiez hornitu</p>	

Banaketa eta lankidetzeta hori guztia alokatutako furgoneta batekin egiten dugu. Alokairuan ordaindu ditugu dagoeneko 15.000€, baina hori ez da bertako gastu bakarra. Proiektua garatu dadin, aurrekontu altu bati aurre egin behar diogu: **hilero 64.500€, urtero, aldiz, 824.000€.**

Atxikita azken orrialdean gastuen aurrekontu xehea.

2019 URTE GOGORRA ERREFUXIATUENTZAT ETA ZAPOREAKEKO PROIEKTUARENTZAT

Otsailaren 11ean, lehenengo otordua banatzen hasi ginen Lesboseko uhartean. Oraindik ere jarraitzen dugu ahalegin horretan, ez da gutxi.

Greziar irletako egoera orokorra

2019. urtean zehar, greziar uharteetako errefuxiatu kopurua hirukoiztu egin zen: 14.615 lagun zeuden urte hasieran eta egun 42.421 daude. Hazkunde horren arrazoi nagusia zera da: 2019an iritsi zen iheslari kopurua bikoitza izan zela 2018. urtekoarekin alderatuz gero, hau da, 32.276 izatetik 60.720 izatera heldu ziren, hurrenez hurren. Alta, penintsulara eraman zituztenen proportzioa ez da modu berean hazi.

2016. urteko martxoan, Europako eta Turkiako Gobernuak 3.000.000€-ko akordioa sinatu zuten. Hitzarmen hori medio, irletara iristen ari ziren pertsonen kopurua nabarmen apaldu zen. Turkiako Gobernuak, Frontex-en laguntzarekin (Kostaldeko eta Mugako Poliziaren Europar Agentzia), bertako kostaldetik abiatzen diren itsasontzien segika aritzen da. Harrapatuz gero, berriz ere Turkiako lurretara eramaten dituzte, behartuta. Nazionalitatearen arabera, bidaiariak zuzenean beraien jatorrizko lurraldeetara deportatzen dituzte; bestela, kanporatze agindu bat ematen diete eta 15 eguneko epean lurraldea utzi behar dute. Metodo horri esker, 2019. urtean, 108.198 lagun atzeman zituzten itsasoan, Greziako irletara iritsi aurretik. Horietarako asko eta asko dagoeneko Europako uretan zeuden.

Lesboseko uhartea

Lesboseko uhartean, 2019. urte hasieran 7.119 errefuxiatu zeuden, urte amaieran, berriz, 21.268. Horrenbestez, Moriako errefuxiatuen esparruan pilatzen dira iheslarien %98. Eremua gainpopulatuta dago eta urtearen bigarren seihilekoan iritsi ziren emakume, haur, familia nahiz pertsona helduak bat-bateko kanpin dendetan bizi dira, plastiko eta egurrekin sendotuta, ez baitago lekurik. Oinarrizko eskubideak ez dira betetzen, hala nola: elikadura, zerbitzu medikoa eta etxebizitzarena. Hori dela eta, egoera oso larrian bizi dira; higiene falta handia dute eta babesgabe daude.

Moriako errefuxiatuen esparruko egoera

Moriako egoera geroz eta makurragoa da. Errefuxiatuak etengabe iristen ari dira eta pairatzen dituzten bizi baldintzak oso prekarioak dira. Bertan pilatzen den populazioa babesgabe dago, oinarrizko eskubideak ez daudelako bermatuta. Asilo eskaerak, gainera, geldituta daude, blokeatuta. Horregatik, Zapora-ek ahalegin berezia egiten du beste GKE-ekin elkarlana sustatzeko, esaterako, iheslariari Moriari irteerako eta espazioz aldatzeko aukera ematen dieten horiekin. Besteak beste, Yoga and Sport for Refugees eta Movement On the Ground elkarteekin



kolaboratzen dugu beraien ekintzetara gerturatzen diren errefuxiatuei otordu duin bat eskainiz. Bestalde, One Happy Family eta The Home Project-ekoekin elkarlanean hasi gara. Larrialdi plan bat antolatu dugu elkarrekin, horiek ere kozinatzeke gaitasuna baitute. Ezinbestekoa da guretzat antzeko helburuak ditugun erakundeak elkarlanean aritzea, batez ere, egoera larria denean.

Zaporeakeko baliabideen erabilera

Baliabide materialen erabilerari dagokionez, berrerabilitako arrantza-sarek osatutako poltsak banatzen hasi gara. Poltsa horiek Euskal Herriko boluntario talde batek egin zituen eta ekimen horren bitartez, egunero-egunero sortzen dugun zabor kantitatea murrizten dugu eta errefuxiatuek ingurugiroaren aldeko apustua egiten dute. Horrekin batera, bertako ekoizleen alde egiten dugu tokiko produktuak erosiz. Ondorioz, ekonomia lokalari laguntzen diogu eta produktu ekologikoekin kozinatzen dugu.

Boluntariotza txanda bakoitzean 4 edo 5 lagun joaten dira Euskal Herritik Lesbosera. Epealdi bakoitzak hiru aste irauten du eta tartean aurreko zein ondorengo txanden arteko gurutzaketa izaten da. Esperientzia aberasgarria da zinez, ezagutza partekatzen baitute elkarrekin eta sukaldeko funtzionamenduak, horrela, ez du etenik.

GKE-en egoera


Greziar eta turkiar Gobernuak ikaragarri zailtzen dute Zaporeak bezalako GKE-en lana, hala nola, esparruetarako sarrera debekatuz. Lurralde hauetako administrazioeko baldintzak betetzen dituztenek soilik lan egin dezakete esparru barruetan, baina bete behar diren eskakizunak ez dituzte betetzen pertsonen Giza Eskubideak, inondik inora. Neurri horiek estrategia politiko eta ekonomikoei erantzuten diete eta zeharo aldentzen dira elkartasunetik eta gizatasunetik.

Egoera horrelakoa izanik ere, gure eguneroko egitekoan jarraitzen dugu sukaldean eta Lesbosen lan egiten duten beste GKEekin aliantzak sortzen, esaterako, Kitrinos Healthcare-ekin. Klinika horrek gaixotasun kronikoak dituzten pertsonak sailkatzen dizkigu, bai eta zaurgarritasun egoera gorrian direnak ere (mediku azterketa bat egin ostean) eta horrela gure banaketara gerturatzen dira Zaporeakek prestatutako otordu osasungarria jatera.

Zaporeakeko proiektua

Gaur egun, hiru errefuxiatuk parte hartzen dute Zaporeakeko sukaldean. Ekintza xume hori oso garrantzitsua da. Pertsona horiei espazio seguru bat eskaintzeak on egiten die, beraien gaitasunak lantzeko aukera baitute. Sorterrian, pertsona horiek sukaldariak ziren eta beraien ezagutzatik abiatuz eta besteenengandik ikasiz, errezeta eta ohitura desberdinak barneratzen dituzte. Ikaragarritzko erreminta da Zaporeakeko sukaldea desberdinen arteko ikasketa eremu gisa baliatzea, bai errefuxiatuentzat, bai eta boluntarioentzat. Azken horientzat, gogoeta esparru aparta da, berez duten pribilegio egoeraz hausnartzeko balio baitie.

Proiektuen garapenerako, ezinbesteko da errefuxiatuen inklusioa, batetik horien bideragarritasuna bermatzeko, eta bestetik, gizarteak uler dezan zein den bere helburua. Ekintza eremuan bertan lan egiten duten elkarteek, hala nola, *Movement on the Ground*, *Stand By Me*,



No border kitchen, Lesvos Solidarity, Kitrinos Healthcare, Team Humanity, Home For All, The Hope Project... ulertu dute zein garrantzitsua den kooperaziorako eredu hori, gizartearen parte hartzearen alde egiten baitu, eta aldi berean, proiektuen mantenuan laguntzen du. Aipatu dinamikak, errefuxiatuak proiektuetan barneratzearena, eskubidedun pertsonak bihurtzen ditu eta aldi berean, erabakiak hartzeko espazio bat eskaintzen die eta ahalduntzerako erremintak ere bai. Ondorioz, pertsona aktibo bihurtzen dira, beraien egoera aldatzeko baliabideak dituzte, eta ahal den neurrian beraien bizi-egoera eta ingurukoa hobetu dezakete.

ZAPOREAK

ERANSKINA: Lesbosen Zaporeak duen sukaldeko kostuak:

-Egunero 1500 otordu ekoizteko oinarria

azalpena	Hilero	urtero
-Hileko gastuen batz bestekoa Lesbosen: <ul style="list-style-type: none"> -barazki freskoak -haragia (oilaskoa, txahala) -Espezieak -ondasun kontsumigarriak (olioa, garbikariak, etab.) -ontziak -sukaldeko lokala eta biltegia (gasa, elektrizitatea, etab.) -Boluntarioen etxebizitza (alokairua, elektrizitatea, ura, etab.) -Ibilgailuen alokairua -ibilgailuen mantenimendua (gasolina, konponketak, etab.) -Askotarikoak (aholkularitza, abokatua, banketxeko gastuak, etab.) 	38.000 €	456.000 €
-Boluntarioen gastuak (urtean, gutxi gorabehera, 150 desplazamendu) <ul style="list-style-type: none"> -hegaldiak -aseguruak -boluntarioen mantenua (gosariak, bazkariak, afariak, etab.) -askotarikoak (sanitarioak, etab.) 	9.000 €	108.000 €
-Lesbosera materialen garraio-kostuak		50.000 €
-Zaporeakeko bulegoko kostuak <ul style="list-style-type: none"> -Sistema informatikoen mantenua -Telekomunikazio gastuak, bidalketak, etab. -Bulegoko materiala -Banku-zerbitzuak -Aholkularitza legala -Hainbat zerbitzu profesional -Aseguruak (erantzukizunekoak, etab.) -Harreman publikoetako gastuak -Askotarikoak 	3.000 €	36.000 €
-Euskadin ditugun gastuak, azpiegiturretan eta mugikortasunean <ul style="list-style-type: none"> -Biltegiko lokalaren alokairua -Ibilgailuen alokairua -Ibilgailuen mantenua -Udal tasak, zirkulazio zergak -Aseguruak -Erregai-horniketa -Mantenu gastuak (garbiketa, elektrizitatea, ura, etab.) -Ekitaldientzako gastuak -Askotarikoak 	6.500 €	78.000 €
-Zaporeakeko langileak <ul style="list-style-type: none"> -soldatak -gizarte segurantzaren kuotak 	8.000 €	96.000 €
GUZTIRA	64.500€	824.000 €